



Elkarrekin hobeto

Uztailaren lehenetik martxan da EuskarAbentura, 150 lagunez osaturiko espedizio ibiltaria. Proiektuaren izenak berak adierazten duen moduan, euskara erroan dagoen elementua da; euskarak dituen euskalkiez baliatuz, Euskal Herriko askotariko parajeak bisitatu dituzte, etapaz etapa gure historiaren hainbat gertaera deskubritu, eta euskal kulturako erreferente direnetatik ere ikasi dute. Haatik, bada EuskarAbenturak hasieratik zehaztua zuen beste ardatz bat: euskal gazteen sarea sortzea, nolabait, bizitzen ari diren momentu ahaztezin horietatik hartu-eman sendoak eraikitzea. Itzalean pasa izan da hainbatetan helburu hau, baina sakoneko ideia da inondik ere.

Duela 80 urte, Harvard Unibertsitatean ikerketa bat jarri zuten martxan. Bizitza osasuntsu eta zorientatsua izateko bidean, garrantzitsuak izan zitezkeen aldagai psikosozialak identifikatzea izan zen jomuga nagusia. Horretarako, bertan parte hartu nahi izan zuen 724 gizon neraberen lagina identifikatu zuten, eta gezurra badirudi ere, ikerlana martxan izan zen zortzi hamarkadetan, bizitzarekiko gogobetetasun mailaren inguruko inkestak betetzeaz gain, noizbehinkako osasun azterketak ere egin zituzten. Nerabetasunetik zahartzarora, bizitzaren etapa desberdinak pasa zituzten parte-hartzaileek prozesuan zehar, eta gizakia aldakorra den aldetik, hamarkada horietan guztietan, euren

Badago EuskarAbenturak hasieratik zehaztua zuen ardatz bat: euskal gazteen sarea sortzea, nolabait, bizitzen ari diren momentu ahaztezin horietatik hartu-eman sendoak eraikitzea

zorientasunaren inguruko ikuspuntu eta pentsamenduak aldatuz joan ziren. Robert Waldingerrek, egun proiektuan lanean dabilen ikertzaile eta irakasleak, atzemandako ondorioz nagusienak bistaratu zituen 2015ean. Oro har, askotariko ibilbideak izan zituzten gizon horiek: hainbat lagun, egoera xumeetatik bizitza arrakastatsua izatera igaro zen, eta beste hainbatek aitzitik, kontrako prozesua bizi izan zuen, gailurrean egotetik hondoa jo zuen. Edonola ere, bizitzako gertaeretatik harago, bada, modu orokor batean eman zen gertaera azpimarragarria: norbanakoaren erlazio sareek, zorientasun eta osasunean eragin positiboa dutela dio Waldingerrek; hau da, harreman egitura sendoek, alaiago bizitzera bultzatzeaz gain, urte gehiago bizitzea omen dakar.

Antzeko ondorioa iritsi zen Stewart Wolf mediku eta ikertzaile estatuba-



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

tuarra ere. Pennsylvaniako Roseto hirian, bihotzekoak emandako 50 urtez azpiko pertsonen ratio baxuaz harrituta, 1960an fenomeno hau ikertzen hasi zen. Antzeko ezaugarriak zituzten bestelako hiriekin alderatuta, Rosetoko italiar jatorriko biztanleen bizitzeko moduan jarri zuen arreta. Wolfen ustez, bertakoen bizitza kolaboratiboa kon-tuan hartzea ezinbestekoa zen fenomeno ulertzeko.

Eztabaida ugari eragin dute lan horietan ateratako ondorioek. Egun, epe laburreko arrakastetan oinarritzen den bizitza eredua dugu, zenbakitu daitezkeen lorpenetan errotzen dena. Erlazio sareek indibiduoetan izan dezaketen eragin positiboa aintzat hartzeak, norbanakoan eragina duten eta zenbatu ezin daitezkeen aldagaiak ere garrantzitsuak direla onartzea suposatzen du. Gainera, epe motzeko erdiespenen eredua ez dator bat harreman osasuntsuak zaintzearen filosofiarekin; izan ere, egari zor, hartu-emanak ez dira errazak; hitzak berak dioen moduan, hartu eta emanekoak dira, begirada luzea dute denboran, eta nola ez, zaintzarekin batera doan prozesua da. Prozesua, eta ez helburua.

Ez dakigu EuskarAbenturak Harvard Unibertsitateko ikerketak bezainbesteko bizitza izango duenentz, baina susmoa dut bertatik sortutako sareek, luzaroan, zorionaren argitxo bat mantenduko dutela guregan. ●